

**EKIALDE HURBILA.** Sharonen kontsultak hasi ditu koalizio gobernua osatzeko, baina laboristak ez zaizkio jin

Erredakzioa | DONOSTIA

Palestinako Aginte Nazionalak (PAN) Zisjordaniako hiri alde autonomoen gaineko kontrola berreskuratzeko plan bat aurkeztu zion atzo Israelgo Gobernuari. Hiri horiek Israelgo Armadaren kontrolpean dira gaur egun, Ariel Sharon lehen ministroaren gobernuak hala erabaki baitzuen, ekintzaile palestinarren atentatu olde bat gertatu ostean.

Azken hilabeteotan gatazka gori-gorian egon ondoren, PAN eta Israelgo Gobernuaren arteko harremanak berriz gauzatu ziren iragan astean, Sharonen hitz egin zuelarik Ahmed Kurea Palestinako Legebiltzarreko presidentearikin. Bilera horretan, lehen ministro israeldarrek mailaz mailako su-eten bat hitzartzea proposatu zion agintari palestinarri, PANek berreskuratzeko hiri autonomoetan segurtasuna bermatzea lortzen duen neurrian.

Hain zuzen ere, atzo izandako bileran, PANeko Barne ministro Hani al-Hassanek Zisjordaniako hiri okupatuaren gaineko aginpideza mailaz maila ere eskuratzeko eta haietan segurtasun indar palestinarrek zabaltzeko plan bat aurkeztu zion Ariel Sharonen kabineteburu Dov Weisglassi. Plan horretan, PANek Israelgo Gobernuari proposatzen dio Ramala hiriaren gaineko aginpideza hartzea lehenik. Planteamendu hori ez da kasualitatea, zeren eta urtebete honetan Ramalan konfinatuta eta Israelgo Armadaz inguratuta baita PANeko presidente Jasser Arafat.


Ramalaren gaineko kontrola berreskuratu ondoren, Zisjordania eta Israelen arteko mugaldeen kokatuak diren Janin, Kalkilia eta Tulkareme-ko hirialdeen aginpideza lortzea gurako du PANek. Israelgo agintarientzat premia gorrikoa den segurtasunaren kontuari dagokionez, Arafaten gobernuak azaldu du bere poliziak zenbait indar berrantolatatu dituela eta haietzako egoitzak prestik direla.

#### Merkantzia sar-irteeren eta langile palestinarren onarpena

Dov Weisglassekin izandako bilera aurretik Hani al-Hassanek atzo nabarmendu zuenez, «2003. urtea erabakigarria izango da palestinar eta israelarren arteko gatazkarako». «Iraken aurkako gerrak ondorio handiak eragingo ditu Ekialde Hurbilean, eta palestinarrok gure lekua izan beharko dugu diseinatuko den mapa berrian», adierazi zuen PANeko Barne ministroak: «Hortaz, garaia

## Zisjordaniako hirien kontrola berreskuratzeko plan bat aurkeztu dio PANek Israeli

Indarkeriak badirau, eta Israelgo Armadak, FPLPko buru bat eta beste bi palestinar hiltzeaz gain, ustezko hiru ekintzaile atxilotu ditu



JAMAL ARURI / EPA  
Jasser Arafatek musulmanen sakrifizio egun sakratua ospatu zuen atzo, Ramalako egoitzan. Tel Aviveko iturriek diote PANi lehen ministro bat izendatzeko eskatu diotela, Arafaten aginpidea murrizteko.

#### HANI AL-HASSAN

PANeko Barne ministroa

«Irakeko gerraren ondotik diseinatuko den mapan gure lekua behar dugu palestinarrok; ez dugu hutsegiteko eskubiderik»

bada ondorio politiko hauek aurreikus ditzagun; ez dugu huts egiteko eskubiderik».

Dov Weisglassek emandako argibideen arabera, segurtasun arloko elkarlana dute lehendabizi indarrean jarriko israeldar eta palestinarrek. Polizia palestinarrek hiri autonomo baten edo besteren kontrola berreskuratu du, Israelen aurkako atentatuak egiteko helburuak dauzkaten ekintzaile palestinarren asmoak galarazteko konpromiso tinkoa hartuta.

Konpromisoa beteta dagoela egiaztatu eta gero, Israelen soldaduak erretiratzeaz gain, mer-

#### AMRAM MITZNA

Israelgo Alderdi Laboristako burua

«Ohartu gara egungo apustu premiatsuez, baina oraindik ere ez dago inolako oinarririk gobernuan sar gaitzen»

kantzien sar-irteerak onartuko ditu, baita lurralde horietako palestinar andana Israelerat lan egiterat joan dadin ere. PANek egiaztatu ez duen arren, Sharonen kabineteburuak ziurtatu du Tel Avivek eskatu diola PANi lehen ministro bat izendatzeko aurki, Jasser Arafaten aginpide maila gutxiarazteko xedez.

Israelen, anartean, koalizio gobernu baten osatzeko ahaleginei ekin zien atzo Ariel Sharon lehen ministroak. Iragan urtarilaren 28ko hauteskundeetan garaile irten zen lehen ministroaren Likud alderdi eskuindarra, baina, hala ere,

Knesset legebiltzarreko 120 diputatuetatik 38z baino ez zen jabetu. Yisrael Baaliya jatorri errusiarrekoen alderdi txikiko bi hautetsiak bereganatu baditu ere Likudek, gutxienez 21 diputaturen sostenguz segurtatu behar da Sharon bere gobernuaren aldeko gehiengo lortzeko.

Atzo, beraz, Alderdi Laboristako (19 diputatu), Shinui alderdi laikoko (15 biltzarkide), Shas judu ultraortodoxoen alderdiko (11 hautetsi) eta Batasun Nazionala mutur eskuin kolektiboko (7 diputatu) ordezkariak berarekin hitz egiterat gonbidatuak zituen Sharonen. Amram Mitzna buru duten laboristak, ordea, ez ziren joan lehen ministroarekiko bilera horretara. Israelen gaur egun duen egoera larriak «batasun nazional zabalena» behartzen duela iritzi ziolarik Sharonen, Mitznak zera erantzun zuen: «Egungo apustu premiatsuez erabat ohartuta gaude, baina oraindik ere ez dago inolako oinarririk

#### SALAKETA



ALESSANDRO BIANCHI / EPA  
Bove, Porto Alegren.

#### Judu estremisten mehatxuak jaso ditu Jose Bovek

*Le Monde* egunkariak jakinarazi duenez, Jose Bove Frantziako Laborarien Konfederazioaren lehen burua aurka zehaztugabeko auzi salaketa bat jarri du, ustez judu estremisten aldetik hil mehatxuak jaso eta gero. Porto Alegren (Brasil) Gizarte Foroan parte hartzen ari zelarik, bere sakelako telefonoaren erantzungailuan utzi zizkieten mehatxuzko mezu horiek zioten Frantziar itzultzean, Roissyko aireportuan, «hil» egingo zutela. Laborarien Konfederazioak mehatxuen berri eman zion Poliziari, Boveren segurtasuna berma zezan exijituta. Judu estremistek Boveri leporatzen diote Jasser Arafat PANeko presidenteari sostengua agertzea, Ramalara bertara joanda iaz. LO eta LCR alderdi troskistek, berriz, CRIF Judu Erakundeetako Kontseiluaren aurkako auzi salaketa jarri zuten joan den astean, CRIFeko presidente Roger Cukiermanek «antisemitak» zirela leporatu zielako.

gobernuan sartzerat bultzatzen gaitzakeenik».

#### Hiru palestinar hilak

Konponbide urrats eta politika solasaren artean, indarkeriak badirau. Israelgo Armadak Imad al Mabruk FPLP Palestina Askatzeko Herri Fronteko arduraduna hil zuen atzo Ein Bei Elmako iheslari gunean. Nabulusetik hurbil (Zisjordania), Tsahalen arabera armatuta zebilen beste palestinar bat hil zuten, Netzarimgo kokagune judutik hurbil. Tulkaremen, larunbatean tirokatu zuten palestinar bat hil zen. Bestalde, hiru lagun atxilotu zituzten atzo.